



EUSKALZALE vs VASCOFILLO:
AZKUE BERE BURUAREKIN EZTABAIDATZEN

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Uxune Urkia Sein

Gradua: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2020/2021

Zuzendaria: Blanca Urgell Lázaro

LABURPENA

Lan honetan R. M. Azkuek sortutako *Euskalzale* (Bilbo, 1897-1899) aldizkarian argitaratu ohi ziren “Euskalzale” eta “Vascofillo” pertsonaien arteko gutuneriaren katalogoa agertzeaz gain, hauen azterketa xume bat ere egongo da. Biak ala biak Azkuek sorturiko pertsonaiak izanik, sortzaileak berak zituen asmoak eta helburuak azaleratu nahiko dira, gutuneriaren deskribapenaren eta gai garrantzitsuenen azterketaren bidez.

Bigarren Euskara Modernoa deitzen denaren garaian kokatzen gara. Garai hartan, euskararen egoeraz jabetuta, zenbait hizkuntzalari hori hobetzeko lanetan ibili ziren. Hala ere, desadostasun franko egon ziren hainbat auziren bueltan, hala nola grafiaren auzian, lexikoaren auzian, euskalkien auzian... Batzuk tradizionalagoak ziren bitartean, beste batzuek garbizaletasunerantz jo zuten.

Azkue garbizaleetako bat izan zen. Gaztetatik elizgizon izanda, seminarioan hasi zen, jada, bere idazle zaletasuna erakusten. Bizkaiko Katedra eskuratu ostean (1881), zenbait lan eta proiektu plazaratu zituen euskararen mesedetan, eta horietako bat *Euskalzale* (Bilbo, 1897-1899) aldizkaria da, euskara hutsean argitaratu zen lehenengoa.

Behin testuinguruan kokatuta, gutuneriaren azterketaren hurbilketa bat egongo da. Horretarako, irakurleari lana erraztearren, gutuneriaren katalogo oso bat sortu da, eskutitz hauek aldizkarian zehar sakabanaturik baitaude. Bestalde, lana egiteko lehengaia izan dela ere zilegizkoa da esatea.

Eskutitzetan dauden dozenaka gaietatik bi esanguratsuenak aipatuko dira: grafiaren auzia eta lexikoarena. Bi gai hauek, garai hartan puri-purian zeuden eztabaidagaiak direla jakina da. Eta gutunetan ere, modu jostagarri eta ulerterraz batean azalduko dira, protagonista nagusiak diren “Euskalzale” eta “Vascofillo” pertsonaien arteko hizketen bidez, bi alderdien ideologiak plasmatur.

Amaitzeko, bertatik ateratako zenbait ondorio atzemango dira, hala nola, Azkuek gutuneriarekin zein helburu zeukan, eta zein modutara islatzen duen bere nahi hori. Ikusiko da, Azkuek, pertsonaia hauen sorkuntzarekin, orduko gatazkaren islapen bat egin nahi zuela, eta Azkue gaztearen pentsamoldea aldatzen ari zela azaleratu nahi zuela.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
1.1. Helburuak eta metodologia.....	4
1.2. Testuingurua	5
2. Azkue eta <i>Euskalzale</i> aldizkaria	9
3. Gutuneriaren azterketa.....	11
3.1. Gutunen deskribapena.....	11
3.2. “Vascofillo” eta “Euskalzale” grafiari buruz eztabaidatzen	15
3.3. Garbizaletasuna.....	19
3.3.1. “Vascofillo” eta “Euskalzale” lexikoari buruz eztabaidatzen...	19
4. Ondorioak.....	21
5. Eranskinak.....	23
6. Bibliografia.....	30

1. SARRERA

1.1 Helburuak eta metodologia

Lan honetan Resurreccion Maria Azkuek 1897-1899 urteen artean argitaratutako *Euskalzale* aldizkarian “astean-astea” idazten zuen atal baten katalogo bat egitea izango dut lehen jomuga, “Euskalzalek Vascofillori/Vascofillok Euskalzaleri”, hain zuzen. Behin katalogoa osatuta, gutuneriaren azterketatxo bat eginez, Azkuek *Euskalzale*-ren irakurleei zer erakutsi nahi zien ikustea izango da helburu nagusia. Horretarako, alde batetik, mezu hauetan agertzen diren pertsonaien inguruan jardungo naiz; eta bestetik, erregulartasunaren eta garbizaletasunaren inguruko zenbait datu biltzen saiatuko naiz.

“Euskalzale” eta “Vascofillo” pertsonaiak dira protagonista nagusi, eta Azkuek berak sorturikoak dira. Atalaren izenari buruz, *Euskal Prentsaren Lanak*-ek (EPL) emandakoa erabiltzea zilegizkoa iruditu zait, “Euskalzalek Vascofillori/Vascofillok Euskalzaleri”, hain zuzen, eta bertan, bi pertsonaia hauen artean, hiru urtez, gurutzatu zituzten mezuak biltzen dira. Orduko euskalarien profil desberdinen isla izango dira bi hauek, eta noizean behin, beste pertsonaiaren bat edo beste tartekatuko da eztabaidan, iritzi desberdinen ekarpenak eginez.

Horretarako, lehenik eta behin, XIX. mende amaieratik hasi eta gerraraino Euskal Herriko egoera zein den zehazten saiatuko naiz, gizartearen aldetik bai, baina batez ere euskararen egoeraren eta orduko hizkuntza ideien aldetik. Euskararentzat garai latzak ziren, baina bazen hizkuntza honen alde egin eta biziberritzeko prest zegoenik.

Behin testuinguruan kokatuta, Azkueren aurkezpena, eta honekin batera, *Euskalzale* aldizkariaren aurkezpenaren txanda izango da. Garrantzitsua izango da aldizkariaren helburuak finkatzea, ondoren, katalogoan bildutako mezuen helburuekin lotzeko, funtsean elkarri lotuak baitoaz. Aldizkaria kulturazkoa izateaz gain, informatzailea ere bazen, eta garrantzitsuena dena, euskara hutsean. Hau erabat ezohikoa zen Hegoaldean eta, beraz, pentsa nezake zenbait irakurleren kontzientzietan eragina izango zuela.

Horren ostean, gutuneriaren azterketa xume bat egiten saiatuko naiz, orokorrean ikusi ditudan gauzekin, eta kontu batzuetan zertxobait sakonduta. Horretarako, *EPL*-ren hemerrotekaz baliatu naiz, sarean eskura jarri duen *Euskalzale* aldizkariaren digitalizazioaz, hain justu.

Funtsean, gutunek erakusten dutena Azkuek bere buruarekin nola eztabaidatzen duen da. Bere abileziarekin, garai hartako gizartearen deskribapen zehatza emango digu, kritikaren bat edo besterekin. Hizkuntzalarien artean pil-pilean zeuden gaiak jorratuko ditu, lagun arteko mezuen bidez. Hala nola, garbizaletasunaren gaia izango da garrantzitsuenetako bat, grafiaren eztabaidarekin batera. Auzi honek, eztabaida franko ekarri zituen Euskal Herrian, hizkuntzalari bakoitzak ikuspegi ezberdinetatik jotzen baitzuen. Hala ere, orduko egoera hori kutsu dibertigarri eta umoristiko batetik azaleratuko duela ikusiko da.

Amaitzeko, ikerketatxoa egin ostean atera ditudan zenbait ondorio aipatuko ditut, eta baita hausnarketaren bat edo beste, gaur egungo egoerarekin erkatuta.

1.2. Testuingurua

Zehaztapenetan hasi baino lehen, nahitaezkoa da testuinguruan kokatzea, lanaren mamia errazago uler dadin. Horretarako, nagusiki, Iñaki Camino (2018) hizkuntzalariaren lana erabili dut, nahiz eta, Jurgi Kintana (2008) historialariaren lanaz ere zertxobait baliatu naizen.

II. Karlistaldiaren osteko garaian kokatzen gara. 1876an bukatu zen liberalen garaipenarekin, eta euskal liberalek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruak mantendu nahi bazituzten ere, Cánovas del Castillok gidatzen zuen Espainiako liberalek suntsitu egin zituzten euskal lege zaharrak. Lehenik, Nafarroan galdu ziren 1839-1841ean, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 1876an, esan bezala. Eta hortik, 1878an Kontzertu Ekonomiko izeneko autonomia fiskal berria ezarri zen euskal probintzietan. Hala ere, bazen egoera berri hori onartu nahi ez zuenik, eta Kintanak (2008: 28) ongi dioen moduan, “elkarte foruzale intransigenteak”¹ sortu zituzten, foruak berrezartzeko asmotan. Haatik, hauteskundeetan ez zuten nahi besteko arrakastarik lortu, baina bai, ordea, kultura arloan. Horrela, “Lore Jokoak”, aldizkari “baskofiloak”, euskal kulturaren aldeko elkarteak eta beste zenbait ekimen bultzatu zituzten (Kintana, 2008: 28).

¹ Foruzaleekin erabili ohi den adjektibo da. *Auñamendi* entziklopediaren arabera: “Se trataba, pues, para los transigentes, de aceptar la ley del 21 de julio y de tratar de llegar a un modus vivendi, con el gobierno. Para los intransigentes, cuya cabeza más visible son las Diputaciones de Guipúzcoa, Vizcaya y Alava, la ley es inaceptable por principio y lo que ha de hacerse es efectuar la reforma de los fueros prevista en la del 25 de octubre de 1839” (Estornés s.d. [=data gabea]).

XIX. mendearen amaieran, metahizkuntzak garrantzia handia izan zuen. Caminok (2018: 690) azaldu duenez, Euskal Herriaren egoerari loturik sentitzen zen euskara gizartean, eta areago, aurrez aipatu bezala, foruak galdu izanagatik. Garai hartan, hizkuntzaren nolakoari buruzko ikuspegi kontrajarriak zeuden gizartean, eta orduko idazleek sarri eztabaidatzen zuten nolako euskarari idatzi erabakitzeke. Oro har, denboratxo bat pasa behar izan zen euskararen nolakotasuna onartu, eta iritzi kontrajarriak alde batera utziz, euskara ez artifizial bat aztertzen hasteko. Badira jarrera zientifikoa erakutsi zuten zenbait euskalari, hala nola, Urkixo, gaztaro ondoko Azkue, Gavel, Lafon edo Mitxelena, euskararen berezko izaera onartzeko ideia indartu zutenak. Beste alde batetik, idazle zaharren hainbat lan berrargitaratzen hasi ziren zenbait euskalari: Axularrenak, Beñat Etxeparerenak, Oihenartenak, Tartasenak... Baina, idazle zahar hauen merituen goraiamendu honen ideiak ez zuen berehalakoan arraska handirik izan. Izan ere, euskararen *sendatzaile* deitu ohi zaien ideia berriak sortu ziren Bigarren Euskara Modernoaren lehen urteetan gerra arte.

Caminoren (2018: 690) hitzekin bat etorriaz, Euskal Herrian ziztu bizian ari zen hedatzen erdararen eragina, eta euskal corpusean nabarmendu egiten zen. Horrexegatik, Pablo Pedro Astarloaren² ideietan oinarriturik, euskara lehengoratzeko lanetan hasi ziren zenbait euskalari. Bi adibide garrantzizkoenak emate arren, alde batetik, Azkuek izenaren eta aditzaren morfologian proposatu zituen zenbait berrikuntza, eta haren ondotik beste euskaltzale batzuek ere bai; eta Aranak, beste alde batetik, alderdi lexikoan garbizaletasun joera nabarmena erakutsi zuen. Oro har, hitz asko berak asmatu zituen, edo horrela “saldu” izan da, eta hitzok mende bukaeratik Arantzazura arte, baita gerora ere, oso erabiliak izan ziren.

XIX. mendearen amaieran, euskararen inguruko hiru joera nagusi sumatzen dira: a) euskararen guztizko erregulartasuna bilatzea; b) euskararen guztizko garbitasuna bilatzea; eta c) euskararen berezko izaera gaitzestea. Lehengo biak, euskararen *sendatzaile*-ei dagozkie, Caminok (2018: 690) asmatutako izen egokia erabiliz.

a) Euskararen guztizko erregulartasunari dagokionez, Azkue gaztea da euskararen sendatzaile esanguratsuenetako bat. 1891n *Euskal-Izkindea* deituriko

² XVIII. mendeko apaiz, hizkuntzalari eta filólogo bizkaitarra zen. *Auñamendi Eusko* Entziklopedia-ren arabera, 1803an Madrilen *Apología de la lengua Bascongada o ensayo crítico-filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen* argitaratu zuen (Estornés s.d. [=data gabea]). Bere obrarik garrantzitsuenak, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o Gramática y análisis razonable de la Euskara o Vasconces* da, Azkue eta Aranak bertatik atera baitzituzten euren ideiak.

gramatika saio bat egin zuen, Bizkaiko Aldundiak sortutako euskarazko katedra irabazi ostean. Honekin, Azkuek, bizkaiera egokiago bat eta arautuago bat eraiki nahi izan zuen, beti ere garbizaletasunaren eta erregulartasunaren ildotik jarraikiz.

Hala ere, Azkueren gramatika hiztunengandik oso urrun zegoen gramatika bat zen, eta aurrerago zehaztuko badut ere, lanean horrelakorik iradokiko digute gure pertsonaiek. Horren harira, Mitxelenak gerora ironikoki “hiperbizkaiera” deituko zuen literatur bizkaiera bat sortu zuten bizkaitarrek, mugarri izango dena hauentzat.

b) Garbitasunaren bilakuntza da Caminok (2018: 696) aipatzen duen bigarren joera. Labur esanda, garbitasunaren funtsa hizkuntza bati kanpo eragina erraietatik kentzen saiatzea da, hau da, geografikoki ondoan duen hizkuntza, normalean, zapaltzaile den baten eragina deuseztatzea, hain zuzen. Horrelako saioak Euskal Herrian ez ezik, munduko toki gehiagotan ere egin dira, hala nola, Turkian edo Estonian. Esaterako, turkieraren kasuan, arabiar eta iraniar maileguak errotik kentzeko ahalegina egin zuten. Baina horretarako, ezinbestekoa egin zitzairen eskolen eta komunikabideen kontrola edukitzea. Euskal Herriaren kasuan, ordea, ez zegoen tamaina horretako kontrolik, are gehiago, zentsuraren menpean bizi ziren. Beraz, desabantaila horrekin jokatzeko zuten orduko euskalariak.

Bilakuntza honetan, garbitasun lexikala, morfologikoa, sintaktikoa eta baita grafikoa ere bilatuko dira. Nire ikerketarako garrantzi berezia izango dute bai lexikoak eta baita grafiaren gaiak ere, eztabaidatzen diren beste gai nagusien artean baitaude auziok.

Garbizaletasunaren ardurak XX. mendean gorazko joera hartu zuen, bi hizkuntza handiren artean baitzegoen euskara.

c) Hirugarren —eta azken— joera, Caminok (2018: 702-703) “hizkuntzaren naturalismoa eta darwinismoa” deitu duena da. XIX. mendearen bigarren zatian, euskalaritzak kritika gogorrak jasotzen zituen, bai hizkuntzari begiratzeko moldeengatik eta baita egiten zuen gramatikagatik ere, izan ere, gramatika tradizionala egiten zuten, hizkuntzalaritzak European egindako aurrerapenak kontuan izan gabe. Hizkuntzalari berriek positibistatzat jotzen zuten beren burua; aldiz, euskalari tradizionalen lanak metafisikotzat. Kritika hauek egiten zituztenen artean Achile Luchaire, van Eys eta Vinson zeuden, besteak beste.

Astarloak, euskara Jainkoak emandako perfekzioa duen lehen hizkuntza naturala dela zioen. Eta Astarloak berak, eta baita Azkuek ere, denbora lar pasa zenez gero, euskaldunek berek euskara hutsunez eta ahulgunez bete dutela irizten zioten eta, beraz, hondamendirantz zihoala. Hala ere, naturalista frantziarren ustetan, hizkuntzen garapenak hobekuntza bidean ezartzen ditu hizkuntzak behar bezalako bilakabidea jasaten badu. Eta euskalarien artean bazegoen ikuspegi honen aldekorik ere, hala nola, Vinson eta Unamuno gaztea.

1860ko hamarkadan Europako mendebaldean hizkuntzalaritza naturalista sortu zen, eta hauek bat egiten zuten Darwinismoaren ikuspegiarekin, hau da, izaki bizidunen eboluzioarekin eta hautapen naturalen legeekin. Hortaz, hizkuntzari txertatu zioten teoria hau. Hauen ustez, hizkuntzen garapen mailan, hizkuntza isolatzaileak ondotik hizkuntza eranskari bihurtzen dira eta azkenik hizkuntza malgukari.

Vinsonen ustez, gizarteko orduko aldaketak eragin zion euskarari zorigaitza. Hala ere, bai Vinsonen eta baita Unamunoren ustetan, euskarak berezko gaitz bat dauka, barrenekoa dena, eta hau hizkuntza eranskaria izatea da. Hizkuntza eranskariak hizkuntza malgukariak baino gaitasun mugatuagoa dutela zioten gizarteko komunikazio konplexuaren aurrean eta, beraz, irtenbide bakarra euskaldunek euskara alde batera utzi, eta erdaraz hitz egitea eta bizitzea zela.

Horrez gain, pentsatzen zuten euskara ez zela maila goren horretara helduko, eta hobe zela hizkuntza berari ahanzte. Honen kontrari, Azkue agertu zen 1888ko Bizkaiko Aldundiko Euskara Katedrara aurkeztu zuen txostenean, esanaz hizkuntza eranskaria izateak ez zuela eraginik euskararen kalterako.

Eztabaida honek bazuen kanpoko osagaien bat edo beste: alde batetik, foruen auzia eta, bestetik, Euskal Herriaren kokapen geografikoa. Horrez gain, Vinsonek salatu zuen euskaldunen adimena loak harturik zegoela, eta apaizen eraginaren poderioz euskaldunen aitzinamendua galarazi duela. Baina bazen honen aurkako ideia zutenik, Bonaparte edo Campion adibidez, eta Vinsonen aurka agertu ziren, argudiatuz Euskal Herriko alfabetatze maila eta kulturaren kalitatea gorenekoak zirela.

Eztabaidek luze jo zuten arren, laburpen moduko bat egiten saiatu naiz aurreko orrialdeetan, testuinguruan kokatzeko eta euskara zein egoeratan zegoen zehazteko, beharrezkoa izango baita nire ikerketatxo ulertzeko.

Orain, beraz, goazen Azkue eta *Euskalzaletze* aldizkariari begirada bat botatzera.

2. AZKUE eta *EUSKALZALE*

Resurreccion Maria Azkue euskal apaiz, musikari eta idazlea zen. 1864ko abuztuaren 5ean jaio zen Lekeition. Ama Karmen Aberasturi Uribarri (1835-1913) mundakarra zen, eta aita Eusebio Maria Azkue Barrundia (1813-1873) lekeitiarra. Euskal zaletasuna etxetik jaso zuen, bere aitak, ofizioz Lekeitioko nautikako irakasle bazen ere, euskarazko olerkiak idazteko zaletasun handia baitzeukan (Kintana, 2008: 27).

II. Karlismaldia amaitu ostean, Azkue gaztea Gasteizko seminarioan sartu zen, 1881eko irailean, eliz ikasketak egiteko asmotan. Ondoren, Salamancan jarraitu zituen ikasketok, eta bertan hiru urtez egon zen 1885etik 1888ra bitarte. Garrantzitsua da Azkueren gaztetako garai hau, izan ere, orduan hasi zen bere lehenengo musika konposizioak sortzen, ipuin txikiak idazten, etab. (Kintana, 2008: 28).

Ondorengo urteetan, *Euskal-Izkindea* izeneko gramatika argitaratu zuen 1891n, euskaraz eta gaztelaniaz idatzia. Eta horrez gain, *Bein da Betico* (1893) eleberria eta *Vizcayatik Bizkaira* (1895) opera ere idatzi zituen (Diaz-Noci, 1993: 498). Ezin ahaztu gabe geratu *Ardi galdua* (1918) literatur lana, besteak beste.

1888an, Bizkaiko Diputazioak sustatuta, Bilboko institutu probintzian euskara katedra bat sortzeko proiektua agertu zen eta irakasle bat hautatzeko deialdia ireki zuten. Honek garrantzi erabatekoa duenez Azkueren hasierako ibilbidean, hurrengo lerroetan sakonduko dut Itziar Lakak (1987) hartaz egin zuen lana erabiliz. Katedra honek oihartzun handia izan zuen foruzaleen arteko “belaunaldi berriko” gazteen artean, batez ere Aldundiaren izenak postuari berari eta, bide batez, euskararen irakaskuntzari ematen zion ofizialtasunagatik (Laka, 1987: 411). Bilboko gizarte eta kultur giroaren adierazle nagusi da katedra honek sorturiko zalaparta. Izan ere, sei gazte aurkeztu ziren deialdira, Gipuzkoakora urte batzuk lehenago bakarria (Gaspar de Oregi apaiza) aurkeztu zen bitartean. Bilboko Ikastegira aurkeztu ziren sei gazteak hauexek dira: Luis de Iza, Pedro Alberdi, Eustaquio Medina, R. M. Azkue, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana. Azken hiru hauek, zalantzarik gabe, entzutetsuenak izan diren sortzaileak dira, eta 1876ko belaunaldiaren seme gisa ezagunak. Baina postu hau Azkue jaunak eskuratu

zuen, hogeita lau urte besterik ez zituela eta, hortaz, apaiztu berria zen gaztea irakasle lanetan hasi zen Bilbon.

Hala ere, katedraren lehiaketaren emaitzarekin bazen konforme gelditu ez zenik, eta hau Arana jauna da. Lehiaketa honek Arana eta Azkueren arteko harremana zapuztu egin zuen, ez baitzizaion zilegi iruditzen Azkue postuaren irabazle izatea. Hortaz, Lakaren (1987: 412) hitzetan, gaitzondo antzeko zerbait nabari daiteke Aranak Azkueri egiten dizkion kritika zorrotzetan. Gainera, Azkuek plazaturiko proposamen guztiei muzin egiten zien, ia sistematiko baztertuaz guztiak. Honek, beraz, eragin handia izango zuen bai Azkueren erabakietan eta baita euskararen garbitze prozesuan ere.

Euskal Izkindea-z geroztik, Azkueren ideia linguistikoa aldatu egin zen. Bere ustetan, euskara jatorra herriarengandik naturaltasunez jariatzen dena zen eta, populista izateak sekulako subjektibitatea ekarri zion erabakiak hartzerako orduan. Hortaz, datu guztiak herriarengandik jasotzen zituen, baina soilik bere bahetik pasa ondoren itzultzen zien herritarrei, gustuko ez zuena alde batera baztertuz.

Azkueri buruz egin dudana sarreratxo honetan, ezin aipatu gabe geratu bere kazetaritza munduko ibilbidea. Idazlearen alderdirik ezezagunena edo gutxien ezagutzen dena da, baina nire lanerako garrantzitsuenak zalantzarik gabe. Azkue bi aldizkari inportanteren sortzaile eta zuzendari izan zen, Díaz-Nociren (1993: 497) hitzak berrartuz, Hego Euskal Herriko euskal kazetaritza behar bezala ezagutzeko ezinbestekoak direnak: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903).

Euskalzale aldizkaria, R. M. Azkuek 1897-1899 artean kudeatu zuen “astean-asteango” aldizkari bat da. Aldizkari hau aurrera eramateko, beharrezkoa izan zen Azkueren adiskidea zen Tomas de Epaltzaren³ diru laguntza. Beraz, 1897ko urtarrilaren 3an lehenengoz agertu zen *Euskalzale* astekaria, Bilboko Jardines kaleko egoitzaatik (Díaz-Noci 1993: 499). Bi zutabetan zegoen antolatuta, eta hasiera batean euskara hutsean idazten bazen ere, hirugarren urtean Bizkaiko gobernadore zibilarren aginduak euskaraz eta erdaraz argitaratzera behartu zuen. Horren ondorioz, denbora gutxira aldizkaria argitaratzeari utzi zioten, Azkuek ez baitzuen onartu nahi izan agindu hori.

³ Tomas Jose de Epalza *Banco de Bilbao*-ko kontseilaria izan zen 1895-1913 urteen artean. Azkueren ikasle izandakoa da. Lehenengo diru laguntza *Método práctico para aprender vascuence guipuzcoano y vizcaíno* argitaratzeko egin zion (Díaz-Noci, 1993:498).

Aldizkaria argitaratu eta urtebete beranduago, urte osoko aldizkariaren aleak liburu gisa argitaratu ziren, eta ia mende bat beranduago, 1982an *Euskalzale* aldizkariaren faksimilea argitaratu zuten *Sendoa* argitaletxeok. Gutuneriaren azterketarako, aurrerago azalduko ditudan zenbait datu interesgarri biltzen ditu Mokoroak (1982) idatzi zuen hitzaurrean.

Euskalzale argitaratu zutenen helburua irakurle bizkaitarren eskuetan euskarazko aldizkari bat ipintzea zen, euskararen inguruko gaiak jorratzeko asmoz. Eta bertako zenbait ataletarik bat “Euskalzale” eta “Vascofillo” ezizenak dituzten pertsonaiek elkarri idatzitako tartean behingo gutunek osatzen dute. Bi pertsonaia hauek Azkuek sorturikoak dira, eta bere buruan zeuzkan kontraesanak zein orduko gizartean sortzen ziren eztabaidak islatzen ditu bi hauen arteko ika-miketan.

“Euskalzale” euskararen garbizaletasunaren aldekoa da. “Vascofillo”, aldiz, tradiziozko pertsona da; hortaz, “Euskalzalek” sorturiko berrikuntzak, bai grafia aldetik eta baita lexiko aldetik ere, ez ditu ontzat hartuko hasiera batean. Horrek eztabaidara eramango ditu gure bi protagonistok, gutun bidez komunikatzen direlarik.

Bada, ondorengo orrialdeetan, aldizkari honetan argitaraturiko gutunetan jasotzen den eztabaidaren deskribapentxo bat egiten saiatuko naiz. Gainera, irakurleak eskuragarri edukiko du eranskinen atalean sortu dudana gutuneria osoaren katalogoa.

3. GUTUNERIAREN AZTERKETA

Behin katalogoa sortuta (ikus eranskina), gutunerian ikusi dudana kontatuko dut ondorengo orrialdeetan, gutunen deskribapen bat eginez, eta bertan jorratzen diren gai nagusiak, edo niri esanguratsuenak edo garrantzitsuenak iruditu zaizkidanak azalduz.

3.1 Gutunen deskribapena

Sortu dudana taula moduko honetan, “Euskalzale” eta “Vascofillo” pertsonaien artean gurutzatzen diren mezuen zenbaketa egin dut. Guztira, 43 mezu daude hiru urtetan elkarri idatziak. Tartean-tartean, beste idazleren batek ere hartu du bere hitza, “Txistular”, “Artatxori” eta “Otzandio” izenekoek hain zuzen ere, guztietan, salbuespenik gabe, “Vascofillori” idazteko.

Hasteko, pertsonaiak aurkeztea izango da funtsezkoa. Aldizkariaren lehen alearen azalean, “Euskalzale” nor den aditzera ematen da, eta honen helburuak zehazten: euskara garbitzea eta erdarakadak alde batera uztea. Horrez gain, aldizkaria elizgizonek idatziko dutela aurreratzen du, eta honekin garbi uzten du, hauek euskara garbiaren aldekoak direla, nire iritziz, horrela herritarren edo, hobekiago esanda, irakurleen onespena jasoko duelakoan. Argi dago pertsonaia honen atzean aldizkariaren eta, beraz, Azkueren helburua ezkututzen dela.

Hortaz, zilegi da esatea “Euskalzale” pertsonaia aldizkariaren pertsonifikazio bat dela. Are gehiago, aski da gutuneria irakurtzea “Euskalzale” Azkue bera dela konturatzeko, han-hemen horixe frogatzen duten aztarna garbiak baitaude. Adibidez, bosgarren *geia* edo alean, “Vascofillok” “Euskalzaleri” Eusebio Maria Azkue aipatzerakoan “ceure Aitaren icena” idazten dio, zehatz-mehatz. Are garbiago, 18. gutunean “Euskalzale” berak “R. M. de A.” gisa sinatzen du. Mokoroak (1982) bere hitzaurrean gutunetatik atera ditudan teoriak bermatzen ditu: batetik, baieztatu egiten du lehenengo “geia” Azkuek idatzia dela goitik behera, besteak beste; bestalde, hauxe gaineratzen du:

Eta hurrengo eun-da berrogei ta amar aleetan ezta izango bakar bat, berak gutxi-asko ondugabekorik: izen-orde batez edo bestez, naiz izen-arrastorik batere-gabe.-Esate baterako, bera da Eketa, eta bera baizik ez Vascofillo zalako “matxin-biurri” pixti hura-ere.

Bere hitzak zinez argigarriak dira, izan ere, berak baieztatzen digu “Vascofillo” Azkue bera dela, esaterako. Hala ere, puntu batekin ez nago guztiz ados. Mokoroak (1982) dio “izen-arrastorik batere-gabe”, baina arestian erakutsi dudana moduan, noiz edo noiz Azkuek bere izenaren lehengo letrekin sinatu zuen, ezkutatzeko asmorik ez zuen seinale.

Gutun hauetan nabarmen erakutsi zuen idazleak zer-nolako gaitasuna zeukan pertsonaia desberdinen hizketa moldea eta izaeren imitazioa egiteko. Eta urte batzuk beranduago ere argi erakutsi zuen *Ardi galdua* (1918) eleberriarekin, beste behin, bere barrenetik irtendako pertsonaia ezberdinen lanketarako trebezia, kreatibitate eta jakintza maila aldetik.

“Vascofillori” dagokionez, Lariz izeneko herri hipotetiko batean bizi den baserritar bat dela esaten zaigu, ez baitu bere identitatea azaleratu nahi. Hala ere, gizon ikasia dela

pentsa daiteke, asko irakurri ez duen arren, bai baitaki berau egiten. Horrez gain, orain argi esan liteke “Vascofillo” Azkue bera dela.

Hortaz, aurretiaz esan bezala, Azkuek bere baitan zeuzkan dudak eta garai hartan euskalarien artean zeuden eztabaidak plazaratu eta eztabaidatuko ditu “Euskalzale” eta “Vascofillo” pertsonaien arteko mezuen bidez. Horretarako, zenbait euskalariren laguntza edukiko du “Euskalzalek”, hauek ere goitizenez bataiatuta: “Txistular”, “Artatxori” eta “Otzandio”. Badakigu hirukote hau “Euskalzale”-ren laguna dela eta, ondorioz, “Euskalzaleak” direla. Horrez gain, momenturen batean edo bestean, euskalari hauen izen eta abizenen lehengo letra zein den idazten dute bai “Vascofillok” eta baita “Euskalzalek” ere. “Txistularren” kasuan M. O. da, eta “Otzandioren” kasuan P. M.. Hala ere, beti goitizen batez sinatuko dute gutuna, eta ez da inongo momentutan hauen izenik argitaratuko.

Aldizkariaren lehenengo urtea liburu modura argitaratu zenean, hurrengo urtean (1898) “Azaldariak” izeneko atal bat topa daiteke, ziur asko Azkuek berak idatzia eta, bertan, aldizkarian parte hartu zuten idazleen izenak eta hauen lanak ageri dira. Beraz, honek, gutunerian parte hartu duten beste egileen berri eman diezadake.

Lehenengo urtean, Azkue (R. M.) agertzen da “azaldariak” aurkibide moduko atalean, besteak beste. Hark idazten zuenari dagokionez, “Euskalzale”-ren gutunak soilik ageri dira: *Euskalzale nor dan* (1⁴), *Euskalzalek Vascofillori* (10, 35, 63, 150, 188, 213, 279, 298, 350, 362). Egileen artean “Vascofillo” ere agertzen da: *Vascofillok Euskalzaleri* (3, 27, 54, 142, 180, 202, 263, 326, 396, 424). Hortaz, “Vascofillo”-ren egiletasuna alde batera uzten du. Honek esan nahi du “Euskalzale” Azkueren ideien transmisorea zela eta, aldiz, “Vascofillo” ez. Horrez gain, “Txistular” ere ageri da egileen artean, eta honek *Vascofillori* (381) idatzi zuen.

Bada, hemen bi aukera daude: bata, Azkuek idatzi zituela gutun guztiak, “Txistular”-rena barne, eta beraz, bere egiletasuna ere ez duela aitortzen; eta bi, “Txistular” gaur egun ez dakidan, baina M. O. inizialak dituen beste idazle baten goitizena izatea, eta beraz, bere esku-hartze bat egotea aldizkarian.

⁴ Zenbakiek “geia”-ren orrialdearen zenbakia adierazten dute, eta ez *EPL*-k emandako orrialdearen zenbakia.

Bigarren urteari dagokionez, Azkuek honako hauek idatzi zituen: *Euskalzalek Vascofillori* (84, 104, 278, 386). Eta “Vascofillok”: *Vascofillok Euskalzaleri* (11, 72, 95, 250, 296, 377), eta *Vascofillok Edonori* (128). “Txistular”-ek ere idatzi zuen gutun bat: *Txistularrek Vascofillori* (14). Bestalde, “Artatxori”-ren gutun bat daukagu hemen, eta honen egiletasuna adierazten digu Azkuek: Pablo Zamarripa Uranga (1877-1950) idazlea da, eta berak *Artatxorik Vascofillori* (260) idatzi zuen.

Azkenik, hirugarren urtean, Azkuek *Euskalzalek Vascofillori* (131, 315), eta “Vascofillok” *Vascofillok Euskalzaleri* (57, 122, 229, 321), eta *Vascofillok Otxandiori* (73) idatzi zituzten. “Otxandio”-ren kasuan, gutuneriaren sailean ez dagoenez, zail da asmatzen zein den P. M. hori. Hortaz, bere ezizenarekin geratu beharko oraingo.

Oro har, “azaldari”-etan datorrenak bat egiten du nik sortutako katalogoarekin, nahiz eta tartean-tartean parte hartu duten egile guztien nortasuna ez argitu. Hala ere, oso lagungarria egin zait, nire katalogoaren zuzentasuna bermatzen lagundu baitit.

Eskutitzak, normalean, txandakatuz idatziko dituzte, alegia, lehenik eta behin, batakat idatziko du, eta ondoren, bestearen erantzuna etorriko da, ohikoa denez. Hala ere, hilabeteak pasa ahala, txandakatze hau hautsi egingo da, normalean “Euskalzale”-ren partetik, oso lanpetuta ibiliko baita hiztegi bat idazten. Esan gabe doa hau une ezagun batekin lotzekoa dela: Azkue hiztegi hirukoitza idazteko lanetan ari zen unearekin. Bestalde, gutunetan kontatzen diren istorioez eta eztabaidez gain, badira argitaratu gabe gelditu diren beste zenbait idazki edo aldizkariko beste atalen batean argitaratu direnak. Izan ere, aurreko gutunean aipatu ez diren gaiak jorratzen dituzte sarri hauen erantzunetan, eta honek haria galtzea ekar dezake. Honen kasua da aipatutako beste euskalarien agerpenarena (“Txistular”, “Artatxori” eta “Otxandio”), bat-batean agertzen baitira mezueta eztabaidetan. Beraz, eztabaidaren istorioaren ulerpen osoa izateko, agian, aldizkariko ale guztiak, goitik behera irakurri beharko genituzke. Baina auzi hau beste lan baterako utzi beharko nuke.

Beste ezaugarri esanguratsu bat bi pertsonaia nagusien arteko tratua da. Betiere errespetuzko tratua mantentzen dute bien artean. Hasiera batean, eztabaida tonuan hasiko badira ere, denbora pasa ahala, adiskidetasun bat sortuko da beren artean, eta elkarren arteko begirunezko keinuak nabarmenduko dira mezueta. Esate baterako, *beti zurea* edo *zurea* bezala agurtuko dira, eta *adiskidea* edo *adiskide maitea* moduko epiteto

goxoak erabiliko dituzte. Gainera, gutunetan aurrera egin ahala, norberaren pasadizoak eta anekdotak kontatuko dizkiote elkarri, uneoro eztabaidan aritu gabe.

Hori horrela, eskutitz hauetan nagusitzen dena hartu-eman moduko harreman bat dela datorkigu burura. “Hartu-emana” diot, izan ere, gutunetik gutunera batak besteari eskaintza bat egingo dio, eta besteak, ordainetan, beste zerbait emango dio. Argitzeko, “Vascofillo”-k *Euskalzale* aldizkarian “Euskalzale”-k egin ditzakeen zer hobetuak iradokitzen dizkio irakurle den aldetik eta, horrez gain, “Euskalzale”-k eskatuta, berak idatzitako ipuin txiki batzuk bidaltzen dizkio bertan argitara ditzan. Bestalde, “Euskalzale”-k “Vascofillo”-ri euskararen inguruko zalantzak argituko dizkio, eta bere ipuintxo horiek ezagutzera emango ditu.

Beraz, hasieran biak ala biak kontrako iritzia eduki arren, eta elkar zirikatzeo argumentuak dituzten arren, adiskidetasun estu bat sortu dela atzeman daiteke hiru urteren bueltan. Bistan da, nire iritziz, Azkuek euskaltzale guztiak harmonian bizitzea bilatzen zuela, hau da, denok ados ipintzea. Gero urte askotan zehar euskaltzainburu izateko ez da hasiera makala.

Gutunen deskribaketa orokor bat egin ostean, hauetan jorratzen diren gai nagusiak azaldu nahi nituzke nire ikerketarekin jarraitzeko.

3.2 “Vascofillo” eta “Euskalzale” grafiari buruz eztabaidatzen

Saio honen hasiera aldera aipatu dudan moduan, hizkuntzaren nolakoari buruzko ezbaia nagusitzen zen orduko Euskal Herrian. Euskararen grafia aldaketaren inguruan ziharduten euskalariak buru-belarri. Baina euskararen izaerak zatiketa eragiten zuen hizkuntzalarien iritzietan (Camino, 2018: 690), eta baita eztabaida franko sortu ere. Eskutitz hauetan idatzita dagoenak ederto erakusten du eztabaidaren funtsa: <k> bai ala ez, <h> frantsesa den ala ez, euskalkiak bai ala ez ... Oro har, denak ez zetozen bat hots bakoitzak grafia bakar bat izan behar zuelako ideian. Hala ere, aldizkarian buelta ematen dio honi Azkuek, eta tradizio zalea den “Vascofillo” ideia horren alde azalduko da.

Hirugarren gutunean (“Euskalzale”, 1897-01-10), “Euskalzale” horrela mintzo da: “Aztertu daigun orain egia. Izkinde edo *gramatica*-arazoetan ezer dakien guztiak, legetzat artuta dauke. Izkirakinde edo Ortografia on baten aots (sonido, son) bati izkira

(letra, lettre) bat iagokala”. Eta jarraitzen du aurrerago: “Esaidazu argi ta garbi. ¿Ontzat daukazu izkindari edo *gramatico* guztiak ontzat dauken legea?”.

Laugarren gutunean (“Vascofillo”, 1897-01-24) erantzungo dio “Vascofillo”-k galdera horri:

Zuc diñozun erregliari, ceñec diñuan «Ortografija onian letratic beste soñu edo sonidu, ta soniduric aña letra egon bihar diriala», ondo derichot. Baña ausse dago: gure bequijac *c*-ri ta *q*-ri eguinda dagoz, eta alper dozu EUSKALZALE.

Beraz, oraindik desadostasun bat dagoela sumatzen da, ohituraren aitzakia jarrita.

Kontuan hartu behar dugu, garai honetan oraindik grafiaren normalizazioa gauzatu gabe zegoela. Urgellen (2018) laneko ideiez baliatuz, eta garaian pixka bat atzera eginda, Lehen Euskara Modernoan (LEM) Larramendik “probintzia bakoitzak bereari hel diezaiola” (Larramendi 1729:338, ap. Urgell 2018: 608) aholkatu zuen. Hala ere, Urgellen (2018: 608) arabera, literatur hizkuntzan ondorenak izan zituen berezko sistema bat sortu zuen, eta hau, <ç>-ren ezabatzea izan zen, <tz> eta <ts> orokortu, eta <h> mailegu batzuetarako baliatu, hitz gutxi batzuen salbuespenarekin (*hitz, hil, ura* vs. *hura...*).

Bestalde, Kardaberatzek (Cb *EBO* 19-29, ap Urgell 2018: 608) iritzi trinkoagoak zituen horren inguruan. Bere ustetan “emen gure euskeran [gipuzkeran] ta Bizkaian atxe ori alfarrikako edo serbitzen ez duen gauza da”.

Añibarrok, ordea, Erroren *Alfabeto primitivo* (1806: 63) lanean oinarrituta <k> <qu>-ren orde lehenetsi zuen Larramendi, Kardaberatz eta Mogeli aurre eginez (Urgell 2018: 608).

XIX. mendean zehar euskal grafia egokiago bat lortzeko ahaleginak bata bestearen ondotik etorri ziren, Iparraldekoak batik bat, baina XX. mendea baino lehenago norbaitek eragin orokorrik izatekotan, hori Bonaparte izan zen.

Urgellen (2018: 612) lanean oinarrituta, Duvoisinek Bonaparteri egotzi zion ortografia arrazoizko eta bateratu bat egitearen meritua, Baionan egindako batzar batean mahaiburu egon baitzen. Duvoisinek zioen moduan: “ortografia berria, gure poeten kantuek zabaldua, idazten dakiten herritarrek erabiltzen hasi dira; esku artean ditut

gutun asko non <z>k <ç> baztertu duen eta <qui> eta >qui> osoki desagertu diren” (1869-01-01eko gutuna; Daranatz 1929:164; itzul., ap. Urgell 2018: 612).

Bonapartek 1869an sortu zuen taulan zenbait letra tiletdun sartu zituen, hala nola, <ś> eta <t> (tiletarekin) gaurko <x> eta <tt> adierazteko (Urgell 2018: 613). Badirudi, J. I. Aranak hau kontuan izan zuela alfabeto berritzailea proposatzerakoan, “hitzen soinuari ederki egokitzen zaiona eta euskal idazkera erabat bakuntzen duena” (Aran Sing, 1872: 201; itzul., ap. Urgell 2018: 613). Proposamen honetatik abiatu zen mende amaierako Hegoaldeko grafia berritzaileena. Alde batetik, *Euskal-Erria* (1880-1918) aldizkarian <k> eta <g> orokortu ziren /k/ eta /g/ adierazteko, eta <s> tiletduna erabiltzen zuten /ʃ/ adierazteko; bestetik, Hegoaldeko idazkeran ikur bihurtuko dira tiletak BEMan, Azkueren *Euskal Izkindea*-tik (1891) abiatuta (Urgell 2018: 613).

XIX. mendearen azken 20-30 urteetan Gipuzkoa, eta Donostia batik bat, “euskararen hiriburua” izan zela esan genezake, bertan egiten baitziren euskararen aldeko gauza berrienak, jasoenak eta ausartenak. Azkuek giro euskaltzale horrekin konektatu zuen, eta Bizkaira eta bizkaierara ekarri nahi izan zituen ideia horiek *Euskal Izkindea*-rekin. Haatik, bizkaitarrei ez zitzaien askorik gustatu Azkueren lan hori, ziurrenik tradizioaren aldeko bizkaitarrek ez zutelako jarraitzen, agian ezta ezagutzen ere, *Euskal-Erria* aldizkaria.

Beste aldetik, Aranak 1896an *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* lana argitaratu zuen idazkera berri baten proposamenarekin. Grafiaren adostasunaren alde ez zegoenetako bat zen, berak egitasmo politikoa hartzen baitzuen ardatz gisa hizkuntza plangintza egiterako orduan. Hortaz, jakina da Azkuek eta Aranak ez zutela idazteko arau berdina. Izan ere, Azkuek euskal idazleek akademia sortzea nahi zuen eta akademiarik ez balitz ere, bi alderdietako idazle euskaltzaleek ortografia bat adostea (Caminok 2018: 715).

Historiaren zertzelada batzuk aipatu ditut, baina zer kontatzen digute grafiari buruz protagonistek? Eztabaida <k> grafiaren inguruan hasten da.

“Vascofillo” bigarren gutunean (ikus eranskina) grafia berriaren kontra agertzen da. Argi eta garbi erakusten digu gai honetan bera idazle zaharren aldekoa dela. Corpus plangintza berriaren kontra agertu zirenek euskara kakaz bete zela argumentatzen zuten, <k> grafiari burla egiteko asmoz, eta gure “Vascofillo”-k ere iruzkin bera egiten du

aipatutako gutunean: “zuen KKK orrec cimaurra eiteco obiac diriala [...]” (2. gutuna; “Vascofillo”, 1897-01-03). Honek, hortaz, hasierako “Vascofillo” plangintza berriaren kontrako alderdian argi eta garbi kokatzen du.

“Euskalzale”-ren erantzuna hirugarren gutunean (ikus eranskina) dator:

Mogelek dinoala *K* prantzesa dala. Prantzes orrek zu ta ni baizen euskaldun garbiak dira. Onan balitz bere ¿zer? Mogelek baino gitšiago balio ez-eztaben Añibarrok, beren Esku-liburuan *K* sarri sarri oitu eban; Mogelek baino gitšiago balio eztaben Eusebio Maria Azkuetarrak *K* oitu eban; Mogelek baino gitšiago balio eztaben Zamakolak, beren *Historia de las naciones vascas* deritson liburu ederrean, dino *K* antšínako euskaldunak sarri oituten ebela. (3. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-10).

Gutun honetan bertan, atalaren hasieran aipatu dudan galdera botatzen dio “Vascofillo”-ri: “Esaidazu argi ta garbi. ¿Ontzat daukazu izkindari edo gramatico guztiak ontzat dauken legea?”. Eta ondoren hauxe gaineratzen du: “Baietz badiozu, ezin oitu zeike: *za, ce, ci, zo, zu* ta *ca, que, qui, co, cu*. Orren orde *za, ze, zi, zo, zu* ta *ka, ke, ki, ko, ku* oitu bear dira.” (3. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-10).

Ikusten denez, beraz, eztabaida <k>, eta <c> eta <qu>-rekin hasten da. Hala ere, hurrengo gutunean, laugarrenean zehazki, txistukarien auzia aterako da. “Vascofillo”-k zera galdetzen dio: “*tš* ori cer gaitic esaten dozue *ch*-ren ordiaz?” (4. gutuna; “Vascofillo”, 1897-01-24). Eta besteak erantzun: “Zure itaune onei gei onetakoše lenengo irakurkizunean erantzun dautset” (5. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-31). Irakurkizun hori 1897ko urtarrilaren 31ko azalean dagoen atala da, “*Tš* ta *Ch*” izenekoa. Ez da nire katalogoaren barnekoa, baina, labur esanda, Azkuek honako hau dio *tš* eta *ch*-ri buruz: “Gaztelarren *ch* ezta egokia gure *tš*-n orde *oituteko*. Batetik *c* ta *h* gureak eztirealako. Bestetik *tš* esaten dogunean, aots bi bateratsu esaten doguz: *t* ta *š*”. Badirudi argumentu honekin, “Vascofillo” konbentzitu egiten duela; izan ere, seigarren gutunean grafiaz aldatzearen aldeko agertuko da: “Gauza batzuetan (zeuk esango zendukiena) zuritu nozu. *K* ta *ge-gi* (*gue-gui*-n orde) ta *tš* aurrerantzian neuk be oituko ditut” (6. gutuna; “Vascofillo”, 1897-02-14).

Hemendik aurrerako gutunetan, jada, “Vascofillo”-ren grafia aldaketa ikusten da: <c>, <qu>, eta <ch> erabiltzetik, <z>, <k> eta <tš> erabiltzera igaroko da, euskaltzaletasunerantz pausotxo bat emanez.

Ikusi berri dugun moduan, “Euskalzale” eta “Vascofillo”-ren eztabaidetan bada erreferente izan dituzten idazle zaharren aipuren bat edo beste. Mogelen *Peru Abarka* aipatzen da sarritan (2. gutuna; “Vascofillo”, 1897-01-03), baita Añibarro (3. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-10) edo Astarloaren (4. gutuna; “Vascofillo”, 1897-01-24) meriturik ere. Kasu honetan, “Vascofillo” Mogel zaharraren aldekoa izango da. Honek zerabilen grafia eta hizkera mantentzearen alde. Aldiz, “Euskalzale” idazle aurrerakoiagoen edo garbizaleagoen alde ikusiko dugu. Eusebio Maria Azkue (3. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-10) zein Añibarroren lanak defendatzen ditu euskararen sendatzaile gisa babestuz.

Bada beste datu esanguratsu bat aipatzekoa iruditu zaidana. Lehenengo mezuetan, Aranaren eraginaren zantzuren bat edo beste ikus daitekeela eman dezake, etimologiazko ortografiaren aldeko hatsarrea harturik. Baina kontuan izanik, Azkuek ere hasiera batean horrelakorik egiteko zantzuren bat edo beste erakusten zuela, horri helduko diot. Esaterako, “Euskalzale”-ren gutunetan, *ezkutitza* (3. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-10) eta *ezkerrik asko* (3. gutuna; “Euskalzale”, 1897-01-10) moduko hitzak ikus daitezke <s> grafiaren ordeztuz. Hala ere, *euskara*, *euskaldun* erabilera egiten du, oro har. Beraz, deuseztatuta geratuko da Aranaren eraginaren hustea. Bestalde, baliteke Azkuek berez apikari eta lepokariak ez bereiztea, eta tartean-tartean hiperzuzenketaren bat egitea.

3.3 Garbizaletasuna

Protagonisten artean, esan bezala, eztabaidagai asko atzeman ditut hiru urteren bueltan sortu direnak. Hala ere, auzi nagusietako bat garai hartako garbizaletasuna iruditu zait. Gutun hauetan euskararen garbizaletasunaren inguruan dihardute, nagusiki. “Vascofillo” garbizaletasunaren guztiz kontrakoa da hasiera batean. Aldiz, “Euskalzale”-k, gutxika-gutxika, bere argudioak emanez, konbentzitu egiten du bestea, euskaren onurarako besterik ez dela egiten ari diren guztia argudiatuz. Beraz, aldizkarian bertan ikus daiteke nola “Vascofillo”-k pixkanaka iritzia aldatzen duen gai honetan ere.

3.3.1. “Vascofillo” eta “Euskalzale” lexikoari buruz eztabaidatzen

Eztabaidetako bat, erdarakaden eta honen eraginaren auzia da. Sarreran aipatu bezala, Euskal Herrian ziztu bizian ari zen hedatzen erdararen eragina, eta euskal

corpusean nabarmendu egiten zen. Horrexegatik, euskararen garbitasun hori lortzeko lanetan hasi ziren zenbait euskalari.

Honen harira, Azkuek bere gramatikan *agur egin*, *amets egin* eta *usin egin* moduko perifrasiaren alde egiten du, *agurtu*, *amestu*, *usindu* beharrean, bere ustetan azken hauek erdal eragina baitzekarten (Camino, 2018: 696). Hau frogatzen duen adibiderik ikus dezakegu gutunetan: “Euskalzalek” nahiz “Vascofillok” *pozago egin* (7. gutuna; “Euskalzale”, 1897-02-21), *kalte egin* (8. gutuna; “Vascofillo”, 1897-04-29), *ziri egin* (10. gutuna; “Vascofillo”, 1897-06-03) moduko perifrasiak erabiliko dituzte gutuneriako edozein eskutizetan, nahiz eta noizbehinka puska bakarreko aditz nagusiak tartekatzen dituzten biek ala biek.

Gabeziak ere ikusi zituzten orduko garbizaleek; izan ere, baziren zenbait erdal hitz euskaraz oraindik ordainik ez zutenak edo sekula erabili ez zirenak. Honen harira, Azkuek hizkuntzan bertan zeuden zokoetako hitzen erabilera geografikoa heda zitekeelako ustea zeukan, eta arkaismoak ere etorkizuneko euskararen erabil zitezkeela (Camino, 2018: 698). Idazleak, beraz, sistema hau zerabilen lexikoaren aberastasuna lortzeko. Hori horrela, aldizkarian argitaratutako gutunetan ere topa daiteke nola “Euskalzalek” bizkaieraz berezkoak ez diren hitzak erabiltzen dituen: *biltoki* (Lar, Añ, Hb, A DEV; OEH), *iragarri* (Tr. Documentado en textos occidentales desde Lazarraga. Lo emplea también Jean Etchepare. En Zavala (*Fab RIEV* 1907, 532) se encuentra el sust. vbal. *iragartut-*, pero *iragarri* en *Zav Fab RIEV* 1909, 35. En *DFrec* hay 51 ejs. de *iragarri*, meridionales; Cap 111; OEH), *ordaindu* (Tr. Documentado al Sur desde el s. XVIII. Al Norte se encuentra en J. Etchepare y Mattin; L, BN, S ap. Lh; Lar, Añ (G), H; OEH)... Idazkera honen aurrean, “Vascofillo” zur eta lur geratzen da, ez baitu tutik ere ulertuko mezuen hastapenetan: “Azkanengo gei edo lumero bijetan ikusi ditut aituten ez ditudan berba batzuk; beste batzuk ondo ondo ez dakidazanak” (6. gutuna; “Vascofillo”, 1897-02-14). Eta hori horrela, “lariztarra”-k bere hiztegia zabaltzeko asmotan, erdarakadak edo erdarazko hitzak euskaratzeko eskaera luzatzen dio “Euskalzale”-ri hitzen zerrendak bidaliz, eta euskaltzaleak trukean, itzulpenak bueltatuz.

Hona hemen lariztarrak luzatzen dion zerrendetako bat (6. gutuna; “Vascofillo”, 1897-02-14): “Ona hemen: *Biltoki*, *bitezar*, *iragarri*, *tširo*, *ozkirritua*, *irrikitua*, *berbaroa*, *izpitsu*, *dzapartada* edo *iuti*, *sai*, *destaina*, *destainari*, *mukerra*, *ordaindu*, *burustu*, *sotil*, *aupada*, *errimea*, *mukerra*”.

Horrelako zerrenda pila bidaltzen dizkio aldizkariaren lehenengo urteko ia ale guztietan, eta ondoren, “Euskalzale”-k zerrenda itzultzen dio gaztelaniara itzulita, hurrenez hurrengo zerrendarekin (7. gutuna, “Euskalzale”, 1897-02-21): “Ona emen zuk nai zenduzan berbaak, euren agerkizun edo esan-gureaz: teatro, diploma, anunciar/anuncio, pobre, escalofrío, rendija, rumor, fibroso, salto, buitre, pulla, burlon, esquivo, pagar, descubrirse, hermoso, desafío, hábil”.

Lexikoaren auzia zerrenden bidezkoa da nagusiki gutuneria honetan. Nire ustetan, zerrenda hauen atzean, Azkuek herritarrei hiztegi moduko bat luzatzeko nahia dago, alegia, zeharbidez bidaltzen dien lagungarri edo tresna bat da, erdarakadei aurre egin eta garbizaletasunaren aldeko apustua eginez. Ahalegina ez zen erabat alferrikakoa izan: aitzitik, urteen poderioz ikusi dugu zenbait hitzek arrakasta izan dutela gure lexikoan; beste batzuek, ordea, ez.

Kontuan hartu behar da, jada, garai honetan Azkuek bere gramatika argitaratua zeukala. Hala ere, ez zen konforme geratu lan horrekin eta hurrengo hiztegirako, esan bezala, zokoetako hitzak eta arkaismoak erabiltzeko ahalegina egin zuen, lehenagoko zerrendetan ikusi den bezala. Bada, *Euskalzale*-ren garaian aldaketa gertatu zen jadanik. Agian, Azkuek sei urte lehenagoko gramatikari kritikatzeko bat egiten diola eman dezakeelakoan nago, gramatika hura herritarren ulerpenetik oso urruti geratu baitzen. Haatik, honek ez du esan nahi neologismoak erabili nahi ez zituenik hurrengo lanerako.

Gutuneriaren azterketarekin amaitzeko, ezin adierazi gabe geratu, bistakoa dela bi pertsonaiok euskaltzaleak direla. Izan ere, biek dute euskararen alde zerbait egiteko gogo eta behar hori. Hala ere, denbora joan ahala atzematen da oraindik ere ez dutela ideia berbera ekintzen eta erabakiak hartzerako orduan, garai hartako euskalarien artean gertatzen zen bezala. Ondorioz, oraindik ere lan asko egiteko zegoen seinale izango da hori.

4. ONDORIOAK

Lan honetan, nire asmoa *Euskalzale* aldizkariko “Euskalzalek Vascofillori/Vascofillok Euskalzaleri” atalaren katalogoa osatzea, eta Azkuek hauekin zer kontaktu nahi izan zuen aztertzea izan da.

Gutuneriaren azterketatxoa egin ostean, Azkuek *Euskalzale* aldizkariarekin, euskaltzaletasuna hedatu, eta herritarrei tresna berriak ematea zuela helburu ondorioztatzen dut. Gutunetan orduko hizkuntzalarien arteko liskarren isla perfektua ageri da. Hortaz, badirudi, eztabaidagai horien soluzioa herritarrengan bilatzen zuela, *Euskal-Izkindea* ondoko Azkueren helburua beti izan baita kulturatik eta tradiziozko jende euskaldunen arlotik biziberritzea euskara, baina beti ere bere galbahetik pasa ostean.

Gutuneriarekin, beraz, bi bandoen, garbizaletasunaren aldekoen eta tradiziozaleen pertsonifikazio bat egiten duela ikus daiteke. Bi pertsonaia hauekin, modu erraz eta komiko batean, hiztunengana iristeko ahalegina egiten duela nabari da, eta baita lortu ere. Bestalde, nire iduri apalean, Azkuek gutuneriarekin hizkuntzalariei lezio moduko bat eman nahi die: hau da, ideia kontrajarriak dituzten bi pertsona edo bi talde adostasun batera iristea posible dela erakutsi nahi duela iruditzen zait. Hala ere, bere euskaltzaletasuna eta garbizaletasuna lehenetsiko ditu uneoro, irtenbide bakarra dela iradokiz.

Hortaz, hau guztia esanik, nabari da Azkuek gizartearen isla plasmatu nahi izan zuela gutuneriarekin, beti ere garbizaletasuna helburu izanda, eta beraz, herritarren erreakzioaren esperoan dagoela ondoriozta nezake. Horrez gain, zeharka, hiztunei baliagarriak egingo zaizkien tresnak ere ematen dizkiela ikusi dut, euskararen egoera hobetu zedin, eta erdal eragina ezabatzen laguntzeko.

Laburbiltzeko, euskalariak euskaldun xumeetara iritsi nahi zuela dirudi, hau da, jende ikasia ez zen baserritar, herritar eta hiritarretara. Eta orduko hizkuntzalarien artean zeuden ika-mikak, modu jostagarri eta dibertigarri batean plasmatzen dituela atzematen da. Ondorioz, honelako aldizkari batekin, euskara txoko guztietara iristea ahalbidetu zuela pentsatzen dut. Urte batzuk lehenago, euskal hiztunengandik oso urruti zegoen gramatika bat idatzi zuen, eta beharbada ez zen oso lagungarri izan hauentzat. Beraz, ateratzen dudana beste ondorio bat, bai aldizkari honetako gutun hauen ideiarekin (oro har, *Euskalzale* aldizkariarekin) eta baita urte batzuk geroago idatzi zuen hiztegi hirukoitzarekin, aurreko akats hori ezabatu nahi zuela da, hasieran esan bezala, gramatika ondoko Azkueren helburua beti izan delako kulturatik eta tradiziozko jende euskaldunen arlotik biziberritzea euskara.

Gutuneriaren azterketak, euskararen egoeraren bilakabidea hobeto ezagutzen lagundu dit, eta gaur egungo egoerarekin erkatuta, euskalariak euskara aurrera eramateko zenbat lan egin duten ulertzeko ere balio izan dit.

Nik egin dudana lan hau, gutuneriaren azterketa txiki bat besterik ez da izan, garrantzitsuenak eta esanguratsuenak iruditu zaizkidan eztabaidagaiekin. Hala ere, ezin ukatuzkoa da eskutitz sorta honek aurreragoko lan baterako ere eman dezakeela, oraindik ere asko baitago zukutzeko bertatik. Horrez gain, interesgarria izango litzateke sortu dudana katalogoaren argitalpen bat egitea etorkizun batean, agian irakurleari baliagarri egingo baitzaio horrelakorik.

Bukatzeko, grafiaren inguruko hausnarketatxo bat egin nahi nuke. Gaur egun, normalizat jotzen ditugu euskal abezedarioan ditugun grafia hauek, eta badirudi betidanik izan duela euskarak berau. Baina gutun hauekin ohartu naiz ez dela horrela. Nahiz eta idazle zaharren idazkietatik, jada, jakin grafiaren desberdintasuna, ez nekien zer-nolako eztabaidak egon ziren bai XIX. mendean eta baita XX. mendean ere honen normalizaziorako. Beraz, honek garbi erakusten du gure egungo idazkerak ez duela urte larregirik, eta historiari begiratuta oso berria dela. Egun, Euskal Herriko txoko guztietako euskalariak esker, eta hauen ahaleginari esker, arazorik gabe idatz dezakegu euskara hutsean, zalantzarik izan gabe zein grafia erabili behar den une bakoitzean. Honek erakusten du, beraz, ernatu egin dela antzina landatutako hazia.

5. ERANSKINA: gutuneriaren katalogoa

Ondoko katalogo honekin *Euskalzale* aldizkariak iraun zuen hiru urteetan (1897-1899) “Euskalzale” eta “Vascofillo” pertsonaia nagusien artean gurutzatu ziren gutunak zein diren eta non dauden ezagutzera eman nahi izan dut modu eroso batean, nire azterketaren oinarri gisa ez ezik, baita Azkueren sorkuntza honetaz interesa pizteko asmoarekin ere.

Katalogoa taula modura sortu dut. Lehenengo zutabean, gutun bakoitzari zenbaki bat esleitu diot, guztira zenbat gutun dauden jakiteaz gain, azterketan zehar erreferentziak emateko ere errazagoa izateko. Bigarren zutabean, Azkuek gutun bakoitzari eman dion izenburua agertuko da. Hirugarrenean, alearen zenbakia joango da. Laugarrenean, gutunak eman ohi dizkiguten bi data motak: batetik, eskutitza

idatziriko eguna; eta bestetik, argitalpenaren eguna. Bosgarrenean, zein orrialdetan agertzen den (*EPL*-k hemerrotekan emana). Eta seigarren zutabean, gutun bakoitzaren gai nagusia, labur-labur adierazita. Honako hau zaila egin zait zehazten, ez baitagokio gutun bakoitzari gai zehatz bat, eta askotan ez da adiskidetasun mezu bat besterik, hauen anekdotak eta pasarteak kontatzeko aitzakia bat.

Taulara joan baino lehen, garrantzitsua da ‘geia’ hitzaren esanahia zehaztea. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren (*OEH*) arabera, *gai* hitzetik sortutako aldaera bat da, zubereraz, bizkaieraz eta behe-nafarreraz topatuko duguna.

Esanahiari dagokionez, “Vascofillo”-k gutun batean zehazten du sinonimo bidez: “gei edo lumero” (6. gutuna; “Vascofillo”, 1897-02-14). *OEH*-ren aburuz, *lumero* = numero. Ondorioz, ‘gei’ hitzaren esanahia ‘alea’ litzateke, hau da, aldizkariaren numero edo alea.

Hau guztia azalduz, beraz, goazen katalogoarekin.

GUTUN A	IZENBURU A	ALEA	ARGITALPEN DATA	ORRIALDE A	GAIA
1	<i>Euskalzale nor dan</i>	I Urtea; I Geia	-Argitaratu: Bilbon, 1897-01-03	1	Euskalzaleren aurkezpena
2	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; I Geia	-Idatzi: Bilbon, 1896-12 -Argitaratu: 1897-01-03	3	Grafiaren inguruko kexua
3	<i>Euskalzalek Vascofillori</i>	I Urtea; II Geia	-Idatzi eta argitaratu: Bilbon, 1897- 01-10	2	Hots bakoitzak hizki bat
4	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; IV Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 01-16 -Argitaratu:	3	Aurrekoa onartu, baina idazle zaharren alde

			1897-01-24		egin
5	<i>Euskalzalek Vascofillori</i>	I Urtea; V Geia	-Idatzi eta argitaratu: 1897-01-31	3	Idazle berriek idazle zaharrek beste dakitela arrazoitu
6	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; VII Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 02-08 -Argitaratu: 1897-02-14	6	Vascofilloren grafia aldaketa
7	<i>Euskalzalek Vascofillori</i>	I Urtea; VIII Geia	-Idatzi eta argitaratu: Bilbon, 1897- 02-21	6	Euskalzaleren poza berriaren aurrean
8	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; XVIII Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 04-24 -Argitaratu: 1897-04-29	6	Vascofilloren haserrea Txirristen hitzen aurrean
9	<i>Euskalzalek Vascofillori</i>	I Urtea; XIX Geia	-Idatzi: Bilbon, 1897-05-04 -Argitaratu: 1897-05-06	6	Barkamena eskatu, eta euskarazko irakurgaiak bidaltzeko eskaera egin
10	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; XXIII Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 05-29 -Argitaratu: 1897-06-03	4	“h” eta “ts”-ri buruzko kexua, eta irakurgai zaharra
11	<i>Euskalzalek Vascofillori</i>	I Urtea; XXIV	-Idatzi: Bilbon, 1897-06-08	4	Aldizkarirako zer hobetuak

		Geia	-Argitaratu: 1897-06-10		adierazteko eskaera
12	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	I Urtea; XXVI Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 06-29 -Argitaratu: 1897-06-24?	2	Euskalzaleren asmakizunei kritika
13	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	I Urtea; XXVII Geia	-Idatzi eta argitaratu: Bilbon, 1897- 07-01	5	Vascofillo zuzentzen
14	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	I Urtea; XXXIII Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 08-08 -Argitaratu: 1897-08-12	7	Euskalzaleri lausenguka
15	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	I Urtea; XXXV Geia	-Argitaratu: 1897-08-26	7	Norberaren akatsak onartu behar direla adierazi
16	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	I Urtea; XXXVIII Geia	-Argitaratu: 1897-09-16	2	Eskerrak eman “egiazko” ipuinagatik
17	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	I Urtea; XLI Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 10-01 -Argitaratu: 1897-10-07	6	“Egiazko” ipuinaren inguruko xehetasunak
18	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	I Urtea; XLIV Geia	-Argitaratu: 1897-10-28	6	Vascofilloren ekarpen gehiagoren eskaera

19	<i>Euskalzalek Vascofillori</i>	I Urtea; XLVI Geia	-Argitaratu: 1897-11-11	2	<i>Zu/hi/berori</i> arteko eztabaida
20	<i>Txistularrek Vascofillori</i>	I Urtea; XLVIII Geia	-Argitaratu: 1897-11-25	5	<i>Zu-ren</i> erabilera historian zehar
21	<i>Vascofillok Txistularrei</i>	I Urtea; L Geia	-Argitaratu: 1897-12-09	4	Onartu Txistularrek esandakoa
22	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; L Geia	-Idatzi: Larizen, 1897- 12-04 -Argitaratu: 1897-12-09	4	Txistularri goraintziak, eta Euskalzaleri ea bizirik dagoen
23	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	I Urtea; LIII Geia	-Argitaratu: 1897-12-30	8	Eskerrak Euskalzaleri aldizkariagati k
24	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	II Urtea; I Geia	-Idatzi: Larizen, 1898- 01-10 -Argitaratu: 1898-01-13	3	Txirristi buruzko kexua
25	<i>Txistularrek Vascofillori</i>	II Urtea; I Geia	-Argitaratu: 1898-01-13	6	Goraintziekin batera esandako gauzei erantzuna
26	<i>Vascofillok Euskalzaleri</i>	II Urtea; IX Geia	-Idatzi: Larizen, 1898- 02-26	8	Euskalzaleren erantzunaren zain

			-Argitaratu: 1898-03-03		
27	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	II Urtea; XI Geia	-Argitaratu: 1898-03-17	4	Vascofilloren ipuinari kritika
28	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	II Urtea; XII Geia	-Idatzi: Larizen, 1898- 03-22 -Argitaratu: 1898-03-24	7	Kritikari erantzuna, eta aldizkarirako galderak
29	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	II Urtea; XIII Geia	-Argitaratu: 1898-03-31	8	Galdera horiei erantzuna
30	<i>Vascofillok</i> <i>edonori</i>	II Urtea; XVI Geia	-Argitaratu: 1898-04-21	8	Euskalzalek erantzun gabeko galderak plazaratu edonork erantzuteko
31	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	II Urtea; XXXII Geia	-Idatzi: Larizen, 1898- 08-07 -Argitaratu: 1898-08-11	2	Euskalzaleren isiltasunagatik kexuka
32	<i>Artatxorik</i> <i>Vascofillori</i>	II Urtea; XXXIII Geia	-Idatzi: Txorierrin, 1898-08-16 -Argitaratu: 1898-08-18	4	Euskalkiaren inguruan eztabaida
33	<i>Vascofillori</i>	II Urtea; XXXV Geia	-Argitaratu: 1898-09-01	6	Bere erantzuna jasoko duela esan

34	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	II Urtea; XXXVII Geia	-Argitaratu: 1898-09-15	8	Euskalzaleen artean Vascofillori buruz egiten dituzten barreez kexuka
35	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	II Urtea; XLVIII Geia	-Idatzi: Larizen, 1898- 11-21 -Argitaratu: 1898-12-01	1	Gezurrezko Baskofilogatik kexuka
36	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	II Urtea; XLIX Geia	-Argitaratu: 1898-12-08	2	Barkamen eske
37	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	III Urtea; VIII Geia	-Idatzi: Larizen, 1899- 02-07 -Argitaratu: 1899-02-23	1	Aurtengo aldizkariari buruzko zer hobetuak
38	<i>Vascofillok</i> <i>Otzandiori</i>	III Urtea; X Geia	-Idatzi: Larizen, 1899- 03-05 -Argitaratu: 1899-03-09	1	Otzandioren laudorioei erantzuna
39	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	III Urtea; XVI Geia	-Idatzi: Larizen, 1899- 04-17 -Argitaratu: 1899-04-20	2	P. M.-ri zirikada, eta galdera batzuk
40	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	III Urtea; XVII Geia	-Idatzi: Bilbon, 1899-04-27 -Argitaratu:	3	Galderei erantzuna

			1899-04-27		
41	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	III Urtea; XXIX Geia	-Idatzi: Larizen, 1899- 07-17 -Argitaratu: 1899-07-20	5	Euskararen inguruko beste itaune batzuk
42	<i>Euskalzalek</i> <i>Vascofillori</i>	III Urtea; XL Geia	-Argitaratu: 1899-10-08	3	Irakurkizun batzuk Vascofillorent zat
43	<i>Vascofillok</i> <i>Euskalzaleri</i>	III Urtea; XLI Geia	-Idatzi: Larizen, 1899- 10-08 -Argitaratu: 1899-10-15	1	Ordainetan beste irakurkizun batzuk, eta kezkatuta Euskalzalegati k

6. BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R. M. (1897-1899): *Euskalzale: Euskerazko albistari edergarriduna*, Bilbo. Euskalzalen moldagintzan. Faks. Donostia: Sendoa, 1982. Digitalizazioa: Euskal Prentsaren Lanak, <<http://www.hemeroketa.eus/argi.htm>>, [2021/02/10].

CAMINO, I. (2018): “Bigarren Euskara Modernoa (1876-1968)”, in Gorrochategui, J., Igartua, I. eta Lakarra, J. A. (eds.), *Euskararen Historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 659-735.

DÍAZ NOCI, J. (1993): “Azkue, kazetaria”, *Euskera* 38: 3, 497-513.

ESTORNÉS, I. s.d. “Astarloa y Aguirre, Pablo Pedro de”, *Auñamendiko Eusko Entziklopedia*, <<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/astarloa-y-aguirre-pablo-pedro-de/ar-15761/>>, [2021/06/04]

- ESTORNÉS, I. s.d. “Fuerismo”, *Auñamendi Eusko Entziklopedia*, <<https://aunamendi.euskotikaskuntza.eus/eu/fuerismo/ar-63267/>>, [2021/06/04].
- KINTANA, J. (2008): *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- LAKA, I. (1987): “Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I)”, *ASJU* 21:2, 409-424.
- MITXELENA, K. (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia* (15 lib.). Bilbo: Euskaltzaindia.
Online bertsio eguneratua: <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>, [2021/05/07].
- URGELL, B. (2018): “Lehen Euskara Modernoa (1745-1891)”, in Gorrochategui, J., Igartua, I. eta Lakarra, J. A (eds.), *Euskararen Historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 608-609 eta 612-613.